

EIBARKO KALEEN MEMORIA



Gerra aurrean, Eibarko kalerik zaharrenak elizaren inguruan zeuden: Arraindi kalia, Barrenkalia, Txirio kalia, Elgeta kalia, Birjiñapia...

Baina gerra garaian alde zahar gehiena suntsituta gelditu zen.

Galdutako kaleen memoria berreskuratu nahi izan da ibilbide honetan.

Gerrako Ahotsak proiektuan jasotako ahozko testigantzetan oinarritua.



Map data: ©2022 Google / Badihardugu Euskara Elkartea



1 EIBARKO KALERIK ZAHARRENAK GERRA AURRETIK



Lekukoa: Candido Eguren Zabarte

Eibarko kalerik zaharrenak, elizaren inguruan zeuden: Arraindi kalia, Barrenkalia, Txirio kalia, Elgeta kalia, Birjiñapia...

2 ARRAINDI KALEA



Lekukoa: Candido Eguren Zabarte

Arraindi edo Arraindegi kalea, Eibarko San Andres elizaren ondo-ondoan zegoen kalea zen. Bizi handiko kalea. Gerran guztiz suntsituta geratu zen eta gaur egun, lorategi, parke eta elizaren eraikin batzuk daude kalea zegoen lekuan.

3 BARRENKALIA GERRA AURRETIK



Lekukoa: Mertxe Ugarte Atxotegi

Barrenkalia, gutxi gora-behera gaur egun Zuloagatarren kalean dagoen Zuloagaren eskulturatik lerro zuzenean Aldapatxo hasierara (Indianokua jauregia zegoen lekura arte). Bizitza eta mugimendu askoko kalea zen, denda eta negozio ugariarekin.

4 BARRENKALEA ETA ARRAINDI KALEA GERRA OSTEAN



Lekukoa: Emilia Unamuno Zamakola

Barrenkalia, gerraren ondorioz guztiz suntsituta gelditu zen eta kale aldapatsu bat izatetik, laua izatera pasatu zen.

5 TXIRIO-KALE, ELGETA-KALE ETA PIPAR-KALE



Lekukoa: Luciana Larreategi Arizaga

San Andres parrokiaren goikaldean geratzen ziren Eibarko hiru kalerik zaharrenetarikoak: Ipar kalia (edo Pipar kalia), Elgeta kalia eta Txirio edo Txirixo kalia. Gerran, Txirio kaleko etxebizitza batzuk izan ezik, beste guztia suntsituta gelditu zen eta ondorioz, kaleak berantolatu behar izan zituzten. Gaur egun, hiru kaleetetik bi kale izatera pasatu dira.

6 ERDIGUNEAREN BERRANTOLAKETA GERRA OSTEAN



Lekukoa: Jose Mari Cruceta Alberdi

Eliza inguruko kale gehienak gerran suntsitu zituzten. Ondorioz, Eibar harriz beteta egon zen urte askotan. Gerrak utzitako eraikinen hondakinak luzaroan egon ziren Eibarko kaleetan. Gerora, Regiones Devastadas-ek Eibarko erdiguneko plano berrantolatu eta erreka tapatzeko proiektua egin zuten eta guzti hori aurrera eramateko, gerrako preso politikoak ekarri zituzten Eibarrera. Eraikin-hondakinekin, Iperuako lehenengo futbol-zelaia eraiki zen.

Gaur egun, gerra aurreko Eibarko erdiguneko alde zahar edo kale zaharren aztarna bakarra, Txirio-kalean aurkitu dezakegu.



testigantzak entzun

